

SATSE, ELA, LAB, CCOO ETA UGT SINDIKATUEK 5 GREBA EGUN DEITU DITUZTE OSAKIDETZAKO KOLEKTIBO GUZTIEN LAN BALDINTZEN HOBEEKUNTZA ESKATZEKO

Deialdia egin duten sindikatuak Osasun Sailari ohartarazi diote ez dutela simulaziorik onartuko. Bilerak hileroko deitzeak ez du esan nahi benetako negoziazioa dagoenik eta benetan edukiak dituzten proposamenak eskatu dituzte.

Uztaila bukaeran SMERekin sinatutako akordioak agerian uzten du lan-baldintzak hobetzea borondate politiko kontua dela.

SATSE, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak 5 greba egun deitu dituzte Osakidetzan. Uztaila bukaeran, eta udazkenara begira, greba eta mobilizazio dinamika bat hasteko asmoa iragarri zuten, Osakidetza kolektibo guztien lan-baldintzak hobetzeko helburuarekin.

Mobilizazio egutegia adostu dute eta datorren urriaren 30ean greba deituko dute Osakidetza osoan. Abenduan, beste 4 greba egun deituko dituzte:

- Abenduaren 9an, Arabako plantillari deialdia egingo zaio.
- Abenduaren 10ean Bizkaiko plantillari.
- Abenduaren 11an, Gipuzkoako plantillari.
- Abenduaren 14ean, berriro deituko dute greba Osakidetza osoan.

Egutegiak lantokietako kontzentrazioak aurreikusten ditu ere.

Sindikatuak Osakidetza eskatu diote benetako edukiak jorratu ditzala Mahai Sektorialean, eta proposamen zehatzak eta sakonekoak egin ditzala osasun publikoan lan egiten duten kolektibo guztien lan-baldintzak hobetzeko.

Deialdia egin duten sindikatuak Osasun Sailari ohartarazi diote ez dutela simulazio hutsik sustatuko, hileroko bilerak deitze hutsak ez dakarrelako benetako negoziaziorik, eta benetako edukiak dituzten proposamenak eskatu dituzte.

Sindikatuak salatu dutenez, Osakidetza kontrako itxura eman nahi izan badu ere, gaur egun ez dago mahai gainean inolako proposamenik lan-baldintzen akordioa eguneratzeko eta langileen ordainsariak hobetzeko.

SATSEk, ELAk, LABek, CCOOk eta UGTk eskatu dute, edozein bilera egin aurretik, proposamenak idatziz bidaltzeko behar besteko aurrerapenarekin,

sindikatu bakoitzak behar bezala aztertu ahal izan izateko, ekarpenak eta negoziazio-gai berriak egin eta proposatzeko aukera edukitzeko.

Uztaila bukaeran SMERekin sinatutako akordioak bi gauza uzten ditu agerian: lan-baldintzak hobetzea borondate politiko kontua dela; eta Eusko Jaurlaritzak ez duela kolektibo guztien egoera hobetzeko borondaterik. Horrek mobilizatzen eta gure eskubideak kalean exijitzera bultzatzen gaitu.

Deialdia egin duten sindikatuek uztailan azpimarratu zuten Osakidetzaren etorkizuna ezin dela eraiki erantzun partzialen bidez, ezta plantillaren zati bati soilik eragiten dioten akordioen bidez ere, kontutan hartuta gainera horiek ez dietela heltzen osasun publikoaren egiturazko arazoei. Gogoratu behar da SMERekin sinatutako Akordioak aparteko orduetan oinarritutako eredu batean sakontzen duela; sistema hori, 25 urtez indarrean egon ondoren, agortuta dago, eta, gainera, egungo egoeraren erantzuleetako bat da.

Sindikatuak aldarrikapen-plataforma bat adostu dute, honakoak dira puntu nagusiak:

- **Hitzarmena berehala negoziatzea**, 18 urte baino gehiago igaro ondoren osorik eguneratzeko, honako gai hauek barneratuz:
 - **Kolektibo guztien ordainsariak eguneratzea**, soldata hobetuta, galdutako eros-ahalmena berreskuratzen bideratuta.
 - **Lanaldi arrunta murriztea**, urteko ordu-kopurua eta/edo asteko 35 orduak hobetzeko unea da.
 - **Lizentzia eta baimenetan benetako aurrerapausoak ematea.**
 - **Profesionalen arteko desberdintasunak ezabatzea eta irizpide bateratuak aplikatzea** Osakidetzako ESletan.
- Behin-behinean, SMERekin sinatutako akordioan jasotako neurriak langile guztiei zabaltzea beraien egoerarekin bateragarriak badira.
- Zerbitzuen araberako **plantilla-beharren azterketa egitea**, egiturazko defizitak identifikatu ahal izateko.

- **Belaunaldi-errelebo eta talentua erakartzeko plana** diseinatzea eta martxan jartzea.
- **Autokontzertazioa eta aparteko orduak** progresiboki murriztea eta ezabatzea.
- **Sindikatu guztiekin Lehen Arretako eredu berriari ekitea.**
- Adinari lotutako konpentsazio-neurriak barne hartzen dituen **lan-ibilbidea ezartzea.**
- **Bateraezintasun-sistema kontrolatzeko eta gainbegiratzeko mekanismoak indartzea.**
- **Osasun publikoaren pribatizazioaren eta externalizazioaren aurkako neurriak.**
- **Lan osasuna:** langileen lan-karga handiak eta arrisku psikosozialak ebaluatzeko eta arintzeko neurriak.
- **Euskalduntze-plana,** herritarrek eta Osakidetzako langileek euskaraz lan egiteko eta bizitzeko dituzten eskubideak bermatuko dituen.
- Gizonen eta emakumeen arteko **berdintasunerako** neurri eraginkorrak eta aurrekontuan aurreikusitakoak.

Sindikatuak azpimarratu nahi dute ez dagoela kalitatezko zerbitzu publikorik lan-baldintza onik gabe. Horregatik, eta "NEGOZIAZIOA DEFENDATU ORAIN! Mejoras laborales = mejor sanidad pública" lelopean, mobilizatzeko deia egin diete langileei, behingoz kolektibo guztien lan-baldintzak hobetzeko, horiek guztiak ezinbestekoak baitira Osakidetzak egunero funtziona dezan. Era berean, erabiltzaileak eta eragile sozialak mobilizazio horietara batzera gonbidatzen dituzte.

Azkenik, Osakidetzari eskatu diote negoziazio-prozesu bat ireki dezala, langile guztientzako konponbide errealak lortzeko eta herritarren osasun-arreta hobetzeko. Ohartarazi diote orain hasiko diren mobilizazioek lan-baldintzen benetako hobekuntza lortzeko beharrezko iraupena eta intentsitatea izango dutela. Konponbidea Jaurlaritzaren esku dago.

Euskal Herria, 2026ko irailak 10.

SATSE, ELA, LAB, CCOO Y UGT CONVOCAN 5 JORNADAS DE HUELGA PARA EXIGIR MEJORAS LABORALES PARA TODOS LOS COLECTIVOS DE OSAKIDETZA

Las centrales convocantes advierten al Departamento de Salud que no fomentarán simulaciones vacías ya que la mera convocatoria de reuniones mensuales no supone la existencia de una verdadera negociación, y exigen propuestas con contenidos reales.

El Acuerdo firmado a finales de julio con el SME demuestra que la mejora de las condiciones de trabajo es una cuestión de mera voluntad política.

Los sindicatos SATSE, ELA, LAB, CCOO y UGT convocan 5 jornadas de huelga en Osakidetza tras anunciar a finales de julio su intención de iniciar una dinámica de huelgas y movilizaciones de cara a otoño, con el objetivo de mejorar las condiciones laborales de todos los colectivos de Osakidetza.

El calendario de movilizaciones incluye una jornada de huelga el próximo 30 de octubre para todo el personal de Osakidetza, seguida de otras 4 jornadas en el mes de diciembre:

- 9 de diciembre convocatoria a la plantilla de Araba.
- 10 de diciembre convocatoria a la de Bizkaia
- 11 de diciembre convocatoria a la de Gipuzkoa,
- 14 de diciembre convocatoria a toda la plantilla de Osakidetza.

Este calendario incluirá también concentraciones en los diferentes centros de trabajo.

Los sindicatos convocantes exigen a Osakidetza que dote de verdaderos contenidos a la Mesa Sectorial y que haga propuestas concretas y de calado para mejorar las condiciones de trabajo de todos los colectivos que trabajan en la sanidad pública.

Las centrales convocantes advierten al Departamento de Salud que no fomentarán simulaciones vacías ya que la mera convocatoria de reuniones mensuales no supone la existencia de una verdadera negociación, y exigen propuestas con contenidos reales.

Las centrales sindicales denuncian que, más allá del esfuerzo de Osakidetza por dar a entender lo contrario, a día de hoy no hay ninguna propuesta encima de la Mesa para la actualización del acuerdo de condiciones de trabajo y la mejora retributiva de la plantilla.

SATSE, ELA, LAB, CCOO y UGT exigen que, con carácter previo a la celebración de cualquier reunión, se remitan las propuestas por escrito con la antelación suficiente para que cada sindicato pueda analizarlas debidamente y enviar aportaciones así como proponer nuevos temas de negociación.

El acuerdo firmado a finales de julio con el SME deja en evidencia dos cosas: que la mejora de las condiciones de trabajo es una cuestión de mera voluntad política; y que el Gobierno Vasco no tienen voluntad de mejorar la situación de todos los colectivos, lo que nos empuja a movilizarnos y exigir nuestros derechos en la calle.

Las centrales sindicales convocantes ya denunciaron en julio pasado que el futuro de Osakidetza no puede construirse mediante respuestas parciales ni acuerdos que afecten únicamente a una parte de la plantilla y que además no aborden los problemas estructurales de la sanidad pública. Cabe recordar que el Acuerdo firmado con el SME ahonda en un modelo basado en la realización de horas extraordinarias, sistema que tras 25 años de vigencia, está agotado y además es uno de los responsables de la situación actual.

Los sindicatos han acordado una plataforma reivindicativa cuyos puntos fundamentales son los siguientes:

- **Negociación inmediata del convenio** para su actualización integral tras más de 18 años, incluyendo las cuestiones siguientes:
 - **Actualización de retribuciones de todo el personal**, con mejora salarial, orientada a recuperar el poder adquisitivo perdido.

- **Reducción de la jornada ordinaria de trabajo**, es el momento de mejorar el número de horas anuales y/o las 35 horas semanales
- **Aplicar verdaderos avances licencias y permisos** del personal.
- **Eliminar desigualdades** entre profesionales y aplicación de **criterios unificados** en las distintas Organizaciones Sanitarias de Osakidetza.
- Provisionalmente, **extensión al conjunto de la plantilla de aquellas medidas del acuerdo médico que sean compatibles con su situación.**
- Realización de un **estudio de necesidades de plantilla por servicios que permita identificar déficits estructurales.**
- Diseño e implementación de un **plan de relevo generacional y atracción de talento.**
- **Reducir y eliminar progresivamente la autoconcertación** y las horas extraordinarias.
- **Abordar con todas las fuerzas sindicales el nuevo modelo de Atención Primaria.**
- **Establecer un itinerario laboral** que incluya medidas compensatorias vinculadas a la edad.
- **Refuerzo de los mecanismos de control y supervisión del régimen de incompatibilidades.**
- **Medidas contra la privatización y externalización de la sanidad pública.**
- **Salud laboral:** medidas para evaluar y aliviar las altas cargas de trabajo y los riesgos psicosociales de la plantilla.
- **Plan de euskaldunización** que garantice los derechos de la ciudadanía y el personal de Osakidetza a trabajar y vivir en euskera.
- Medidas efectivas y reales y con previsión presupuestaria para la **igualdad efectiva** entre hombres y mujeres.

Los sindicatos quieren subrayar que no hay servicios públicos de calidad sin unas buenas condiciones de trabajo.

Por ello, y bajo el lema “NEGOZIAZIOA DEFENDATU ORAIN! Mejoras laborales = mejor sanidad pública”, hacen un llamamiento a la plantilla a



movilizarse para conseguir, de una vez por todas, la mejora de las condiciones de trabajo de todos los colectivos, porque todos ellos son imprescindibles para que Osakidetza funcione a diario. Del mismo modo invitan a unirse a estas movilizaciones a usuarios y agentes sociales

Finalmente, interpelan a Osakidetza para que abra un proceso de negociación que permita alcanzar soluciones reales para el conjunto de la plantilla y mejorar la atención sanitaria de la ciudadanía vasca; y le advierten que las movilizaciones que comienzan ahora tendrán la duración y la intensidad necesarias para conseguir una verdadera mejora de las condiciones de trabajo. La solución está en su mano.

Euskal Herria, a 10 de septiembre de 2026.